

2018ko ABENDUA

180

txi kitto!



**Algara
sendagarriak...
bai gozoak!!!**

Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartera.
20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa

Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar.

Maketazioa

Ana Aizpurua.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96



Gipuzkoako Foru Aldundia

- Zer esaten dio harri batek beste bati?
- Zein gogorra den bizitza!



- Ingeleseko irakasleak galdetzen dio ikasle bati:
- Nola esaten da txakurra ingelesez?
Dog!
Eta irakasleak:
- Egin ezazu esaldi bat "dog" hitzarekin.
Eta ikasleak erantzuten du:
- Atzo nire aitak dog bero bat jan zuen!



- Jaimitoren amak galdetzen dio:
- Laztana! Eskolan zergatik deitzen dizue ardi?
Eta Jaimitok erantzuten du:
- Baaaaaa ez dakit amatxo!



- Nola esaten da argala txineraz?
FLA KU TXING!





Eibarko parke
bateko lore batek
esaten dio beste
bati:



- Aizu! Berriro laga gaitue hemen plantatuta!



Neska polit bat
txakurrarekin paseatzen
zegoen eta bat batean
mutil bat agertu zen eta
neskari esan zion:

- Nola deitzen da txakurra?

Eta neskak erantzun zion:

- Txita!

- Aaaa orduan Ipurdia Itxita!!
ja, ja, ja...




Bi lagun patioan
eguzkia hartzen
daudela,
galdetzen dio batak
besteari:

- Zer esaten dio
ilargiak eguzkiari?

- Ba egia esan ez
dakit!

- Ba neuk esango dizut zer esaten dion!
Hain handia izanda eta ez dizue gauean
ateratzen lagatzen?



Ume batek
lagunari:

- Nire aitak
ez du 10 urtetan
ilea moztu!

- Zer da ba?

Artista?

- Eez, burusoila!





Hizki-zopa


PLANETAK

Aurki itzazu zortzi planeten izenak




Egileak: Angela. Ane eta Ali

Labirintoa




Egileak: Leila, Gorka eta Anas



Jeroglifikoak

Nor dago errekan?



A



-|

Zer jaten du ardiak?

Egileak: Samantha eta Iker

Lehiaketa

7 desberdintasunak



Bidali erantzunak **urtarrilak 9** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



Unai sariak jasotzen.

Aurreko hileko irabazlea, Unai Casero

Aupa Unai, txapeldun! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ko sudadera zuretako! ZORIONAK!

Karmele Etxeberria

Algaraklown taldeko kidea

Eibarko La Salle ikastetxeko irakaslea da Karmele. Horrez gain, 3 urte daramatza Algaraklown taldean, ospitaletara barreak eramanez, bere hitzetan “barreak direlako botiken laguntzailerik onenak”.



- Umetako amets bat?

Eszenatoki handi batean kantatu eta dantzatzea.

- Eta orain duzun ametsa?

Berbera.

- Klown izateko hiru ezaugarri ezinbesteko?

Enpatia, alaitasuna eta apaltasuna.

- Eta zer 3 gauza eramango zenituzke irla batera?

Musika-tresna bat, txotxongilo bat eta idazteko zeozer.

- Sekula jantziko ez zenukeen arropa?

Trikinia.

- Zure sukaldean sekula falta ez dena?

Txokolate beltza almendrekin.

- Makarroiak tomatearekin ala gabe? Tomatearekin.

- Klown moduan bizi izan duzun egunik politena? Negarrez ari zen bi hilabeteko umetxo bat nire kantua entzutean lasaitu zenean. Gero umearen ama hasi zen negarrez.

- Gehien gustatzen zaizun jakia? Legatza saltsan.

Izena: Karmele

Abizena: Etxeberria

Jaioterria: Ibarra

(Tolosa ondoan)

Jaiotze-data: 1964-11-1



- Eta gutxien? Barrabilak.

- Kolore bat? Berdea.

- Itsasoa ala mendia?

Biak, ezin aukeratu.

- Uda ala negua? Uda.

- Gazia ala gozoa? Gozoa.

- Birziklatzen duzu? Beti.

- Euskara osasuntsu dago?

Ez asko.

- Zer egin bultzatzeko?

Komunikabideek euskarazko KALITATEZKO programa erakargarriak egin beharko lituzkete.

- Nolakoa da zure egun perfektua?

Goizean mendi buelta familia edo lagunekin, bokata bazkaldu, siesta egin eta gauean kontzertu edo antzerki batera joatea.

- Zer ematen dizu klown izateak?

Oso maitatua eta baloratua sentiarazten nau.

- Zerk pozten zaitu?

Agurtzean irribarre polita botatzen didatenean.

- Zerk haserretu?

Ezer egin gabe kritikatzten dutenak.

- Zer eskatuko diozu Olentzerori?

Indar eta alaitasun asko ematea, alaitasun gehiago sortzeko.

Zer egingo dugu Gabonetan?

Gabonetako oporretan atsedena hartu nahi baduzu, bikain; baina egun hauek jolasean, barre egiten, lagun artean eta primeran pasa nahi badituzu, aukera ugari izango duzu. Hemen dituzu Gabonetan egingo diren ekintzak:

OLENTZERO

Abenduaren 11tik 23ra: OLENTZEROREN BUZOIA Pegora eta Portalean.

Abenduaren 24an:

- 11:30ean: 'Zatoz Olentzerorekin abestera!' kalejira Urkizutik hasita: Arragueta - Coliseo - Errebal - Anbulategia - Toribio Etxeberria - Untzaga.



Juan Bautista Gisasola Musika eskola eta Adolfo Jainagaren ikasleen eskutik eta Eibarko kantuzaleak, Kaleetan Kantuz eta Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasleen laguntzarekin.

- 12:30etik aurrera Olentzero udaletxean egongo da umeein azken eskutizak jasotzeko.

ERREGEEN KABALGATA

Abenduaren 20an:

- 09:00etatik aurrera Portalea, Kultura sailean Ipurua Kiroldgian Dantza ikuskizuna ikusteko tiketen banaketa.

Urtarrilaren 5ean:

- 17:00etan: Ipuruako Dantza Garaikidearen, Ballet Eibarres eta Ipurua Gimnasia Erritmikoaren ikuskizuna Ipurua Kiroldgian.
- 19:00etan: Erregeen Kabalgata herriko kaleetan zehar (Untzagatik hasita), Eibarko Musika Bandaren laguntzarekin. Ondoren, azken gutunak entregatzeko aukera egongo da udaletxean. Kaleetan Kantuz eta Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasleen laguntzarekin.
- 12:30etik aurrera Olentzero Udaletxean egongo da umeein azken eskutizak jasotzeko.



GABONETAKO HAUR PARKEA

Eibarko Udalak eta Eibar Merkatal Gune Irekiak 2 - 12 urte bitarteko umeei zuzendutako Gabonetako Haur Parkea antolatuko dute Astelena frontoian opor garaian lagunekin gozatzeko eta ondo pasatzeko.

ZEIN EGUNETAN?

Abenduak 22, 26, 27, 28, 29 eta 31 / Urtarrilak 2, 3, 4

ORDUTEGIA?

11:00-14:00 / 16:30-20:30 - 31an goizez bakarrik



ANTZERKIA


Abenduaren 26an:
17:00etan Coliseoan
Sarrera: 5 euro

PINOTXO

Carlo Collodiren ipuin klasikoa abiapuntu bezala hartuta, Glu-Gluk Pinotxo dakar eszenatokira.

Familia osoarentzako antzezlan da, ikasketatik komediara, antzerkitik musikalera eta dantzatik jolasera. Gepetto bere tailerrean bakarrik bizi den zurgin zaharra da. Egun batean egur zati magiko bat iristen zaio, eta Pinotxo izeneko txotxongiloa sortuko du.

Atzoko, gaurko eta biharko haurrentzako klasikoa taula gainera eramanda, komedia honek publikoa egora desbedinetara trasladatuko du, eta, ikastearekin batera, edozeinek ikusiko du bere burua isladatua. XIX. mendeko ipuinak bizirik jarraitzen du oraindik eta, ondo pasatzeaz gain, hausnarketa eragingo du familiako kide guztien artean.




ROBOTIKA

Abenduaren 26, 27 eta 28an:
09:30etik 13:30era

Robotika Slither EV3 tailerra egingo da Jazinto Olabeiko ludotekan. Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailetako ikasleek hartuko dute parte, eta robotikaren inguruko tailer teknologikoak antolatu dituzte zientzia eta teknologiaren mundu ikusgarrian murgiltzeko helburuarekin.





ni bai artista!

Jengibre etxetxo

Moduren batean edo bestean Gabonei lotuta daude jengibrezko gozokiak. Zinearen indarra handia da eta pantailan sarritan ikusi ditugu horrelako gozoak. Ba ez pentsa oso zaila denik jengibre etxetxo bat egitea. Jarraian azaltzen dizkizuegun pausoak jarraitu besterik ez duzue.

Osagaiak:

- 500 gr. irin
- Irindutako jengibre koilarakada 2
- Irindutako kanela koilarakada 2
- Irindutako iltze (edo intxaur muskatua)ren koilarakada 1/4 bat
- 3/4 sodio bikarbonato koilarakada
- 150 gr. gurin (hotza ez egotea komeni da)
- 150 gr. azukre beltz
- Arraultza handi bat
- 160 gr. ezti

Dekoratzeko:

- Glasa erreala
- Azukrezko dekorazioa: Lacasitoak...



Nola egin:

- 1.- Esnea katiluan bota, ogia sartu eta 15 minutuz Osagai lehorrak ontzi batean nahastu.
- 2- Beste ontzi batean gurina azukrearekin nahastu krema egin arte, eta ezti eta arraultza bota eta gero, osagai lehorrak gehitu.
- 3- Guztia oratu masa homogenea lortu arte.
- 4- Film gardenean bildu eta hozkailuan sartu bi orduz.
- 5- Hozkailutik atera eta arrabolarekin masa luzatu labean sartzeko bi paperen artean. 5 mm-ko lodierako masa utzi eta hozkailuan sartu 30 minutuz.
- 6- Masa gogorra dagoenean etxetxoaren piezak moztu, labeko erretiluan kokatu (paper gainean) eta hozkailuan sartu 20 minutuz.
- 7- Labea 170-175°-tan berotu eta, berotzerakoan, piezak sartu 15 minutuz (ertzak txigortu arte).
- 8- Piezak hoztean, etxetxo eraiki eta dekoratu. Piezak itsasteko glasa erreala erabili. Dekoratu aurretik, pieza guztiak ondo itsatsita daudela ikusi.



Turroi moussea

Zapore klasikoa dauka postre honek, turroia, baina beste modu batean irensten da. Lehenik, bi gelatina orri ur hotzean hidratatu behar dira. Arraultzaren goringoa eta zuringoa banatu, eta zuringoa irabiatu elur-puntua lortu arte. Gero, hozkailuan gorde. Goringoa azukrearekin nahastu eta irabiatu, bere bolumena hirukoiztu arte. Esnea pixka bat berotu eta gelatina orriak bertan desegin. Bestalde, turroia gehitu eta irabiagailuarekin xehatu. Xehatutako turroia ontzi batean bota eta goringora gehitu poliki-poliki. Esne-gain harrotua gehitu, zuringoak ere eta nahasketa guztia ondo integratu. Den-dena kopetan banatu eta hozkailuan sartu.





Baso-azpiko koloretsoak

Gabon-saso honetan zenbat bazkari, afari... egiten ditugun, ezta? Eta mahaia txukun izatea zein garrantzitsua den! Ondorengo eskulanarekin zur eta lur utziko dituzue etxeoak, egin proba!

Materiala:

- Egurrezko makiltxoak
- Itsasgarria
- Zinta itsasgarria irudiekin (washi tape)



Pausoak:

1. Egurrezko makiltxoak moztu, aurrez pentsatutako neurrikoak.
- 2.- Palet-aren goiko aldean joango diren makiltxoak irudi desberdinetako zinta itsasgarriarekin estali. Utzi beste makiltxo batek zintarekin estali gabe, horiek beheko aldean joango dira.
- 3.- Eman makiltxoei palet baten itxura, itsasi elkarri makiltxoak eta... hara hor, baso-azpiko dotoreak!



Elur-panpinak

Gabonetan, etxea, elur-panpinez apaindu nahi baduzue, hemen duzue aukera erraz eta merkea. Margotu txuriz eta bi aldeetatik 3 txapa. Lehortu eta gero margotu begiak, sudurra, ahoa, botoiak... zuek nahi duzuen. Hiru txapak euren artean itsatsi silikonarekin edo bestelako itsasgarriren batekin. Atzetik pegatu zinta zati bat zintzilikatzeke eta listo!



AURREKO HILABETE AMAIERAN, AZAROAN, SAN ANDRES JAIETAN BURU-BELARRI JARDUN DUGU EIBARTARROK. ESKOLETAN ERE EKITALDI BEREZIAK ANTOLATU DITUZUE, ETA ORAINGOAN, ARRATEKO ANDRA MARI IKASTETXERA JOAN GARA, EGUN BEREZI HORIETAN EGITEN DITUZTEN GAUZA MORDOEN BERRI JASOTZERA.



Zelan ospatu duzue San Andres eguna eskolan?



Iris Ruiz
9 urte

Azaroaren 29an jai handia izaten dugu eskolan. Gauza askoren artean azoka egiten dugu, ederra eta handia izaten da, eta hori guztia antolatzekeo gurasoek eta Ibon atezainak asko laguntzen digute. Egun horretatik gehien gustatzen zaidana kantuak eta bertsoak abestea izaten da. 4. mailakoei azokarako ogia ekartzea tokatzen zaigu.



Nahia Prol
9 urte

Azokako produktuez gain, antzinako tresnak ere izaten ditugu azoka apaintzen, adibidez, taloak egiteko espatula, josteko makina, belarmeta bat ere jarri dugu aurten... Bezperan andereñoak azaltzen digu gauza bakoitzak zertarako balio duen. Herri kirolak ere egiten ditugu (toka, aizkora, harriak jaso, giza probak, txingak, sokatira) eta hori da gehien gustatzen zaidana.



Luis Angel Valverde
9 urte

Baserritar jantzita etortzen gara eskolara, eta azokan jartzeko falta diren produktuak jartzen laguntzen dugu. Patioan argazkiak ateratzen ditugu eta handik aretora joaten gara. Han, kantuak eta bertsoak abesten ditugu. Aurten San Andres Eguna, Arragueta kalia, Hiru gizon ilustre eta Eibarko herria kantuak abestu ditugu.



Assem Aytiasine
9 urte

Zozketa ere egiten dugu. Alde batetik, bildots bat zozketatzen dugu, eta horretarako, egun batzuk lehenago, rifak saltzen ditugu. 5. eta 6. mailakoak ibiltzen dira rifak saltzen. Eta gero, azoka egiteko erabilitako produktuekin, 5 otar osatu eta zozketatzen ditugu familien artean. Gehien gustatzen zaidana azoka eta antzinako tresnak dira, baina herri kirolak ere bai.




Sara Elgagui
9 urte

Arratsaldean zozketako irabazleek euren otarrak jasotzen dituzte. Herri kirolak ere arratsaldean egiten ditugu, asko gustatzen zaizkit. Gainera ikasle guztiek kirol denak probatzen ditugu, jokoz aldatzen joaten gara-eta. Tokajolasa da gehien gustatzen zaidana.




Markel Imedio
9 urte

Jan ere egiten dugu, txorizo eta gazta pintxoak. Horretarako gurasoak etortzen dira prestatzen laguntzera. Gurasoek pilla bat laguntzen digute gauzak antolatzen. Aurten jaialdiko aurkezlea izan naiz Alisarekin batera. Oso urduri nengoen baina ondo irten zen. Aurretik bi entsaio egin genituen. Mikrofona apurtu zitzaidan eta mikrofona gabe egin behar izan nuen aurkezpena (barrezka).




Xaguko 6 urtetik aurrera

Gustav itsasargizain zaharrak Xaguko izeneko sagu txikia jaso zuen gau ekaiztsu batean, eta, harrez gero, elkarrekin bizi dira biak. Egun batean, Gustav gaixotu da, eta ezin du itsasargia piztu. Ekaitza lehertzen da gauez, eta itsasontzi bat kostara ari da modu arriskutsuan hurbiltzen. Xaguko konturatzen da, eta marinel haiek salbatzera joango da.



Saharako itsasoa 8 urtetik aurrera

Haizearentzat uda berezia izango da hau: batetik, gurasoak elkarrekin haserre dabilta-zala-ta, nor bere aldetik joango dira oporretan, eta bera izeba Eneritzen etxean geratuko da. Bestetik, izeba Eneritzek Saharako lagun batzuen alaba ekarriko du etxera uda-pasa: Souhaila. Ez da erraza izango Souhaila eta Haizearen arteko harremana, hasieran. Ohitura berriak ikas beharri urruntasuna, inbidiak eta abar erantsiko zaizkio. Beste aldetik, baina, zailtasun horiek guztiek lotura estu bat ere sortuko dute neskato bien artean, luzaroan irauten dutenetakoa.



Haur besoetakoa: Paristik datorren artista 10 urtetik aurrera

Ihes egitea zaila bada, are zailagoa itzultzea, ahaztuen zerrendatik irten eta gailurreraino berriro iristea. Horretan dabil HB. Lehengo lagunak bizirik ote? Lo-lita izan zuen salbatzaile, baina aldi berean etsai; ezin inorekin fidatu. Zailtasunak zailtasun, HB ez da jaio erdipurdikoen lohian plisti-plasta ibiltzeko. Kosta ahala kosta bereganatuko du berriz Litxarrerien Jaunari dagokion lekua. Itzuli da HB!

HATZEKIN KONTATZEN ETA ABESTEN (Aldatze Ikastetxea)

- Abesten zauden bitartean egin behar duzuna:
- 1- Esku bateko hatz lodia beste hatzekin banan-banan ukitu.
 - 2- Ondoren, berdina egin beste eskuko hatzekin.
 - 3- Abestia bukatu arte jarraitu eskuz aldatzen.
 - 4- Ondo egin badezu, "hogeitalau" aterako zaizu.

ABESTIA

Honek, honek eta honek,
bart ezteiak zituzten.
Honek esan zion honi,
gonbidatzeko hau ta hau.
Gonbidau zitun hau ta hau,
orain dira hogeitalau.

jolastokixan jolasian



BIDEOA:

<https://etakitto.eus/txikitto/aldatze-2.html>

berriak

Azaroaren 12an gaiztainerre eguna izan zenez, **URKIZU** ikastetxeko Guraso Elkartekoek, urtero bezala gaztainak erre zituzten jolastokian eta ondoren guztiok dastatu ahal izan genituen. Azaroan herri kirolak praktikatzeko aukera izan genuen, ez dira hain errazak, e? Indarra eta trebetasuna beharrezkoak dira, bai horixe!



Euskal Herri osoan bezala, Urkizu eskolan ere **EUSKARALDIA** egin dugu, ez da ezer falta izan, ahobizien dominak, gela eta pasabideetan apaingarriak, zinea, lehiaketak... denetik izan dugu, eta azaroaren 29an, eibartar jatorrak garenez, sanandresak ospatu genituen.

Aurten ere, ohiturei eutsiz, **SAN ANDRES** eguna ospatu dugu izen bereko ikastetxean. Etxetik ekarritako barazki, frutak, antzinako tresnekin... azoka zoragarria jarri genuen. Eguerdian txistorra jan genuen eta arratsaldean euskal dantzak egin genituen. A zer nolako jai bikaina!



MOGEL IKASTOLAko familiak San Andres bezperan elkartu ziren Iturburun eta egun mundiala pasa zuten.. Aurten ere azoka ederra antolatu dugu denon laguntzarekin.



Arratsaldean, berriz, herri kiroletan aritu ziren ikasleak eta irakasleren batek edo bestek ere bere trebetasuna erakutsi zuen sokatiran. Bestalde guk ere ez diogu hutsik egin Euskaraldiari. Ikastolako Ahobizi guztien artean horma-irudi erraldoi bat osatu genuen euskarari mezu politak eskainiz. Orain, jakin badakigu, Euskarak 365 egun!!!

ARRATEKO ANDRA MARI ikastetxekoak hemen gaude San Andres eta Euskararen Nazioarteko egunak ospatu berri, zein ondo pasatu genuen denok, ikasle, irakasle eta gurasoak denok elkarrekin!



Gabonak ate joka ditugunez, gabon kantak entsaiatzen hasiko gara. Aurten, abenduaren 21ean, Santo Tomas egunean hartzen ditugunez oporrak, goizeko 09.30ean auzoan zehar gabon kantak abestera aterako gara eta bueltan txistorra jango dugu.

AMAÑA

ikastetxeko 3. eta 4. mailako ikasleak abenduan Lurraskara joan ziren esperientzia berri bat bizi eta naturaz gozatzera. Zoragarri pasa zuten!



Kaixo danori **LA SALLE**tik!

Azaroaren 29an **SAN ANDRES** jai giroan ospatu genuen, azoka, euskal dantzak, txorizoa eta denetik izan genuen!!! Abenduaren 3an



Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu genuen "HAU HASIERA BETERIK EZ DA" goiburupean, denon artean esaldia osatuz.

AINGU, EUSKARAREN MASKOTA ALDATZEN Euskaraldiarekin bat eginez, Aldatzeko ikasle gazteenok Aingu izeneko euskararen maskota sortu dugu. Aldatzeko zigiluan bi aingura agertzen dira gurutzatuta eta gure Ainguk euskararekin lotzen gaituzenez, aingura horiei erreferentzia egin diegu bere izen eta gorpuzkerarekin.





ipuin

Haloweeneko eguna

Behin batean hiru lagunek, Miren, Josu eta Marko, jolasteko gogo handia zuten zuten pentzatu zuten mozorrotzea.

Mozorrotu ondoren, basora joan ziren eta etxe misterioa bat aurkitu zuten. Mirenek beldurra zeukan baina Josu eta Marko barrura sartu ziren. Mirenek mamu bat ikusi zuen eta etxera sartu zen. Gero hirurak zombi bat ikusi zuten eta korrika irten ziren.

Ondoren sarhofago bat ireki zuten eta eskeletoak agertu ziren. Korrika ihes egin zuten. Hain beldurtuta zeudenez etxera joatea erabaki zuten baina...

Bidean sorgin bat aurkitu zuten, eta zombia, sorgina eta eskeletoak beraien atzetik zetozela konturatu zirenean ziztu bizian alde egin zuten.


Mirenen etxera heldu zirenean bere gurassak hilda aurkitu zituzten. Negarrez hasi ziren baina gero konturatu ziren hau dena gurassak asmatutako broma bat zela!!!

Hilda zeudela egiteko tomateak jarri zuten, mamuaren mugimendua adierazteko soka batekin oratzen zuten, sorgina mozorro bat zen eta motor bat zeukan hegan egiteko. Eskeletoak pampinak ziren eta zombiak mozorroak ziren.

Azkenean, denen artean pastel gozo bat jan zuten eta oso ondo amaitu zuten eguna.

LANDER SOUTO ETA IMRAN BOUZELMAD





zu margolari